

**HELDU ETA GAZTEEN ARTEKO  
EZBERDINTASUNAK GAZTELERAKO  
GENEROAREN HAUTUAN EUSKARA-  
GAZTELERA KODE TXANDAKATZE  
KASUETAN. IKERKETA  
PROPOSAMENA**

---

EUSKAL IKASKETEN GRADUA 15/16  
HIZKUNTZALARITZA ETA EUSKAL  
IKASKETEN SAILA  
GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: ANDER IZETA GOENAGA

TUTOREA: MARI JOSE EZEIZABARRENA SEGUROLA

## AURKIBIDEA

1. LABURPENA.....	2
2. SARRERA.....	3
2.1. Kode txandakatze motak.....	5
3. LANAREN AURREKARIAK.....	6
4. HIPOTESIA.....	10
5. IKERKETA PROPOSAMENA.....	12
5.1. Ikerketako aztergaia.....	12
5.2. Parte-hartzaileen aukeraketa.....	13
5.3. Metodologia.....	14
5.3.1. Datu bilketarako ariketen proposamena.....	15
5.3.1.1. Sormen espontaneo gidatu gabea.....	15
5.3.1.2. Sormen espontaneo gidatua.....	16
5.3.1.3. Entzumen ariketa.....	18
6. ONDORIOAK.....	21
7. ERANSKINAK.....	23
8. BIBLIOGRAFIA.....	30

## 1.- LABURPENA

Lan honen helburu nagusia ikerketa proposamen bat egitea da. Ikerketa proposamen horretan euskara- gaztelera kode txandakatzearen kasuan, gaztelerazko perpausak generoaren markapena eskatzen duen kasuetan, generoaren hautua nolakoa den heldu eta gazteen artean alderatu nahi da. Proposamen hau beste ikerketa batetan oinarritua egongo da, Parafita et al. (2015), bertan gazteen kode txandakatzeko kasuetan generoaren hautua nolakoa den eta zein kasutan egiten den ikertzen da.

Ikerketa proposamen honetan, lehenik eta behin kode txandakatzearen fenomenoak zertan datzan azaltzen da eta historian zehar izan duen fama txarra gainditzeko zenbait autoreren esanak biltzen dira. Horrez gain, kode txandakatzearen kasua Euskal Herriko elebidunekin (euskara-gaztelera edo euskara-frantsesa) landu duten zenbait autoreren lanak aipatzen dira, batez ere, ondorengo ikerketa proposamena hobeto ulertzen lagunduko dutenak

Garrantzi handia emango zaio adinari lan honetan, izan ere, lanaren funts nagusia gazteen kode txandakatzeari buruzko ikerketa bat helduen kasura moldatzea izango da eta hori ikertzeko proposamena egitea. Ikerketa proposamen honen funtsa generoan datza; Euskararen kasuan, hitanoaren kasua ezik (egon nauk(m) / naun (f)), Izen-adjektibo-det kategorian nominaletan generoa ez da morfologikoki markatzen, baina, gazteleraarekin ukipenean dagoenean sortzen diren kode txandakatzeko kasuetan, gaztelerazko perpaus baten erdian euskarazko izen bat agertzen denean, berez generorik ez duen euskarazko hitz hori gaztelerazko zein generorekin lotzen duen izen bakoitza jakin nahi da eta hautu hori egiterako orduan zein izan den faktore nagusia. Lan honetan bi faktorez hitz egiten da: bata marka morfo-fonologikoa, alegia, -a euskarazko determinatuaile markak gaztelerazko femeninoaren markarekin duen antzekotasunak, -a.z amaitzen diren euskal hitzak, determinatuak, gaztelerazko femeninoantzez bideratzea genero hautua edota analogikoa dena, hautu fonologikoa euskararen kasuan zenbait ikerketaren ondorioetan oso zabaldua dagoena da. Bigarrena, adibidez, analogiko bezala izendatua, ingelera-gaztelera kode txandakatzeko kasuetan maskulinorantzko hautura eramaten duena omen da, adibidez, Poplack et al.en (1982) esanetan.

Ikerketa proposamen honetan helduen kode txandakatzeko kasuetan genero hautua egiten denean zein faktorek duten garrantzia handiena ikusi nahi da, ondoren ikerketa originalean gazteekin lortutako datuekin alderatu ahal izateko.

Parafita et al.-en (2015) ikerketa hiru ariketak osatzen dute: Lehena hizketa espontaneotik jasotako datuak, bigarrena ariketa semi-esperimentala egiten da, ikerlariak proposatutako jolas baten bidez lortzea corpusa, jolas hau ikerketarako beharrezko diren perpausak jasotzeko egokitua egongo dena, eta azkenik kode txandakatzean onarpen maila handiena duten perpausak bilatu nahi dira, beti ere, ikerketa proposamena oinarritzen den parametroetan, alegia, generoaren hautuan euskara-gaztelera kode txandakatzeko kasuetan .

Ikerketa proposamen honetan ere hiru ariketa horiek aurkeztu eta lanerako moldatuko dira ahalik eta datu gehien eta esanguratsuenak jaso ahal izateko, amaieran Parafita et al. (2015) ikerketa lanean 25 urte inguruko gazteekin egindako lanean ateratako emaitza eta ondorioekin alderatzeko helduekin (40-60 urte arteko pertsonak) ateratako datuak.

## 2.- SARRERA:

Ikerketa honetan aztertu nahi den fenomenoak *kode-txandakatzea* edo ingelerazko *code switching*-a (CS) izango da. Muysken-ek (2000:1) dio kode txandaketak erreferentzia egiten diola perpaus batean bi hizkuntzako elementu lexiko eta aspektu gramatikal guztiak agertzen direnean, bestalde, kode alternantzia izan daiteke “hizketako orduan hizkuntza ezberdinen txandakatzeko azkarra”. Hona Ibarren (2015) laneko pare at adibide fenomenoak argiago ikusteko:

(1) Pero ni nintzan neska *más rebelde*.<sup>1</sup>

(2) Joaten nitzanian Erizaa ¡*Yo te daría, yo te daría!*!, euskeraz hitzein gabe.<sup>2</sup>

Txandakatzeko hau ikertzaile askorentzat hizkuntzaren erabilera desegokitzat hartu zen baina Gumperz eta Hernández Chávezen (1972) ustez oso fenomeno ohikoa da eta zenbait hiztunentzat araua eta ohiko jarduna izatera heldu da, eta ez salbuespen bat. Romainek (1995:294) azpimarratzen du, kode txandakatzeko, ospe txarra izan arren, ukipenean dauden hizkuntza guztietan agertzen dela, eta horretarako arrazoi bat hiztunarentzat taldearen identitatearen ezaugarri izatea dela.

---

<sup>1</sup> Ibarra (2015:334)

<sup>2</sup> Ibarra (2015:333)

Aipatzen gabiltzan fenomenoa, Ibarren arabera (2015), oso prozesu kritikatu izan da ikerlari batzuen artean, euskara edo edozein hizkuntza gaizki hitz egitearen seinale. Kode txandakatzea egiten duten hiztunek hizkuntzan gabeziak dituztela uste izan da baina gaur egun jada ez da horrela pentsatzen eta azken ikerketek argitu dute oso prozesu ohikoa dela. Romainek azpimarratzen du (1995:294) ukipenean dauden bi edozein hizkuntzen arteko kode txandakatzek ospe txarra duen arren, ukipenean dauden hizkuntza guztietan agertzen dela, eta horretarako arrazoi bat da hiztunarentzat taldearen identitatearen adierazgarria dela. Poplackek dio (1980) hizkuntza bietan hiztunek duten hizkuntza gaitasunaren seinalea dela.

Gurera etorrita, euskararen kasuetan, Ibarren (2015) azpimarratzen du gauza jakina dela euskaldun zaharrek kode txandakatzea egiten dutela eta ahozkoan ohikoa den jardura dela, beste hiztun elebidun askok egiten duten moduan.

Ibarren (2015) bere lanean dio, J. Gumperz (1982) eta Aurre (1995) bezalako ikertzaileek kode txandakatzea «kontestualizazio seinalea» bezala hartzen dela, elkarrizketaren testuinguruan sortzen diren hainbat faktore funtzional eta pragmatikok baldintzaturiko fenomeno baten aurrean aurkitzen gara: Testuingurua, parte hartzaileak, elkarrizketaren gaia etab (López Morales 1993:173).

Kode txandakateren funtzioei buruzko azterketak ugariak dira Ibarren (2015) esanetan. Gumperzek (1987) adibidez, funtzioak aztertzean ondorengo ondorioa atera zuen: Lehena kode txandakatzea hizkuntza komunitate bateko hiztun elebidunek komunikatzeko hautatu dezaketen aukera bat dela, eta bigarrena, kode txandakatzea diskurtso mota bat dela edota hiztunaren komunikazio aukera bat. Hiztunak erregistro edo dialekto ezberdinen artean mugitzea aukera dezakeen bezala, hizkuntza batetik bestera mugitzea ere aukera dezake.

Gurean, azken urteotan, euskara gaztelera eta euskara-frantsesa txandakatzearen azterketak ugari dira (Lantto 2012; Muñoa 1997; Epelde & Oyartzabal 2009, Ibarra 2010).

Ibarren (2015) arabera euskaldun zaharren kode txandakatzea ohikoa eta arrunta da eta eguneroko jardunean sortzen da. Fenomeno honek funtzio batzuk betetzen ditu: indar adierazkorra ematea, gaiari zehaztasuna ematea eta itzulpen arazoak saihestea eta

hauez gain, hizkerari ñabardura emateko, beste pertsona batzuek esandakoa berriz ekartzea.

Ikerketa proposamen honetarako munduko elebidun guztietatik euskara eta gaztelera elebidun goiztiarrak (bietako bat H2 bezala ikasia dutenak) diren hiztunak izango dira lan honetarako hautatuak, Gertuen dugun kode txandakatze kasua hau delako eta Euskal Herriaren kasuan euskara eta gaztelera delako elebitasun arruntena, EAEko datuen arabera biztanleriaren %32<sup>3</sup> da euskara-gaztelera elebiduna.

Amaitzeko, eta ikerketa zentratzeko, generoaren hautua izango da aztergaia, izan ere, generoaren kasuari dagokionez oso hizkuntza ezberdinak dira euskara eta gaztelania, bata generoa markatzen ez duena (hitanoen kasuak kontutan hartu gabe) eta bestea generoa markatzen duena. Beraz, jakin nahi da helduek gaztelerazko esaldiak osatzean euskarazko izenak sartzean zein genero hautatzeko tendentzia duten, eta euskarazko hitzari gaztelerazko esaldian genero maskulinoa ala femeninoa jartzea zein irizpideren baitan egingo duten, markapen fonologikoagatik ala analogiaren bitartez egiten den. Ikerketa pertsona helduekin egingo da. Heldua diogunean 40-60 urtetik gorako pertsonez ari gara.

## 2.1 Kode txandakatze motak

Lan honetan baliatuko diren euskara-gaztelera kode-txandakatze motak ondorengo zerrendakoak izango dira, baliagarri izango dira momentu bakoitzean erreferentzia egiten zaien perpaus moten berri izateko.<sup>4</sup>

### A. Perpaus-arteak txandakatzea:

- Txakurra zaunkaka dabil. No soporto a ese perro

### B. DS Irlak:

- *Me fui a casa* eta ohean sartu nintzen *sin cenar*.

### C. Gaztelerazko determinatzailea eta izena eta euskarazko determinatzailearekin

- El leche-a

### D. Gaztelerazko determinatzailea euskarazko Izen Sintagma (IS)rekin eta gaztelerazko adjektiboa

---

<sup>3</sup> Soziolinguistika klusterreko datuak (2012) 16 urtetik gorako pertsonen dagozkienak.

<sup>4</sup> Sailkapena Parafita et al. (2015) lanetik hartua da.

- La zuhaitza pequeña
- E. Gaztelerazko izena euskarazko determinatzailea eta euskarazko adjektiboa
- Cepillo-a txuria

### **3.- LANAREN AURREKARIAK**

Kode txandakatze mota desberdinak bereizi ohi dira literaturan. Lan batzuk mota jakin batzuekin dihardute eta beste batzuk berriz ahalik eta kode-txandakatze mota eta adibide gehien biltzeko ahaleginean eginak dira.

Atal honetan zenbait lan aurkeztuko dira ikerketa proposamen honetan baliagarri izan direlako arrazoi ezberdinengatik. Bat, Parafita et al. (2015) ikerketa proposamen hau artikulu horretan oinarritua dagoelako, eta beste zenbait ikerketa proposamen honetarako baliagarriak izan direlako zenbait gai argitzerako orduan edota ideiak hartzerako orduan: Ibarra (2015) adibidez.

Ibarrak (2015) Iruñeko gazte urbanoen hizkera aztertu ondoren Euskal Herriko euskaldun zahar heldu (kasu honetan heldua deitzen dio 50 urtetik gorako pertsonari) batzuen datuekin ateratako ondorioak alderatzen ditu batez ere kode txandakatzearen funtzioak bi adin ezberdinetan berdina direla frogatzeko.

Ibarraren (2015) arabera euskaldun zahar helduen (heldua dionean 50 urtetik gorako pertsonaz ari da, gizon zein emakume) kode txandakatzea ohikoa eta arrunta da eta eguneroko jardunean sortzen da eta ahozkoan gertatzen da.

Gazte urbanoen (Iruñeko 18-20 urteko gazteez ari da) hizkeran ere funtzio berdinak betetzen ditu fenomeno honek Ibarraren (2015) arabera helduenekin alderatuta, eta helduen kasuan bezala esaldi barruan, esaldi artean eta lokuzioetan ageri da. Hala ere eduki aldetik dira ezberdinak helduek eta gazteek sortutako kode txandakatzea duten perpausak, esaldi eta makulu hitzetan, hala nola, hiztegi falta dagoenean ezberdinak dira batak eta besteak erabilitako hitzak.

Ibarra (2015) lanak aurreko lanetako ondorioak ere baliatzen ditu, ondorio horiek gazteekin egindako ikerketatik aterak ditu Ibarrak (2013), gazte hauek Ibarra (2015) laneko helduekin dituzten ezberdintasunak ere nabariak dira. eta inguru euskaldunean bizi direnak. Guztiak gutxi eskolatutakoak dira. Ibarra (2013) ikerketako

gazteak, aldiz, eremu gazteleradunean bizi dira; familia, lagunak, ... nahiz eta eskolaratze osoa hiru urtetatik euskaraz eta D ereduan (euskara hutsean ikasgai guztiak hizkuntzak ezik) egin duten.

Beraz, ikerketa proposamen hau alde batetik helduen eta gazteen kode txandakatze kasuak alderatzera bideratuko da, baina ez funtzioaren da oinarrituko inguruan, hori Ibarra (2015) datuak ikusirik, badakigulako funtzioei dagokienez berdinak direla bi kasuetan, ikerketa proposamen hau kodea txandakatzerakoan erabiltzen dituzten hitzen inguruan oinarrituko da.

Parafita et al.en (2015) lanean genero esleipena gaztelera-euskera nahasten dituzten elkarketa nominaletan ikertzen da. Ikerketak determinatzaile sintagmak aztertzen ditu zeinetan euskaraz (generoa markatzen ez den hizkuntza) izena ageri zaigun eta gazteleraz (generoa markatzen duen hizkuntza) determinatzailea. Hauen ikerketaren arabera, *-a* determinatzailea generoaren espresio morfologikotzat hartzen da gazteleran eta femeninoa da berezkotzat hartzen den generoa, gaztelera-ingeleraren ikerketetan (Jake, Myrers-Scotton & Gross 2002) ateratako ondorioen aurkakoa, nahiz eta generoa ez markatzearen ikuspuntutik euskara eta ingelerak antza izan. Ikerketa proposamen hau, Ibarra (2015) bezala, Iruñeko populazioarekin egin dago, 25 bat urteko bataz besteko adina dutenak eta elebidunak, nahiz eta bizitza gazteleraz egin euskaraz egiten dituztenak ikasketak.

Epelde eta Oyarçabalen (2009) lana ere oso presente izango dugu hauek iparraldeko helduen euskara-frantsesa kode-txandakatzearekin egin baitzuten lan. Ikerketa proposamen honetako oso baliagarria izango zaigu, hasteko erakusten dutelako kode-txandakatzearen fenomeno adin guztietara zabaldua dagoen fenomeno bat dela, izan ere, hauek 60-90 urte bitarteko lau pertsonekin egindako lanean 5 orduko grabaketan 35 postposizio sintagmatan aurkitu dituzte kode txandakatze kasuak. Ikerketa honen ondorio garrantzitsuetako bat da oinarritzko hizkuntza aldatzen denean kode-txandakatzea egiteko modua ere aldatzen dela eta lan honetarako interesgarri izango zaigun beste datu bat da jasotako kode-txandakatze kasuetatik %80 *irlak* direla perpaus oso bat kodez txandakatzen denean, eta %20a *klasikoak* deituek, alegia, substantibo edo adjektibo sintagma soilak direla kodez txandakatzen direnak.

Aurkeztera goazen ikerketa proposamena Parafita et al.-ek (2015) gazteekin egindako ikerketak helduetara moldatu eta probatzeaz datzanez, lehenik eta behin komenigarria da gazteekin egin diren zenbait ikerketaren emaitzak mahai-gaineratzea,



batez ere, ikerketa hauetan metodologiak erabilgarriak izan diren jakiteko eta baita ondoren proposatutako ikerketa lana egiterako orduan zerekin alderatu izateko.

Ibarrak (2013) aipatzen du bere lanerako hartutako lagina ez dela esanguratsua, perpaus barruan gertatutako kode txandakatze kasuak atribuzio perpausetan aurkitu nahi baitzituzten eta 3 ordu eta erdiko grabazioan 40 adibide bakarrik topatu zituen. Hala ere, ikerketarako baliagarriak ez zitzaizkien adibide gehiago baziren baztertuak izan zirenak. Nahiz eta zailtasunak izan dituzten diagnostikatzeko zeintzuk diren arrazoiak kodez aldatzera daramatenak hauek izan dira aurkitu dituztenak: a) Enfatizatzeko, b) Zenbait esaldi kulturalki beste hizkuntzetan ematen direlako eta c) Itzulpenarekin arazoak saihesteko, *triggering* kasuak ere ikusi dituzte, hau da, beste hizkuntzan jarraitzea diskurtsoa. Hauek dira ohikoenak. Testuinguruari dagokionez hizketaldi erlaxatuak izan dira eta ez formalak, eguneroko bizitzan grabagailu batez grabatutako hizketaldiak.

Kode txandakatze kasuetan helduen eta gazteen laginak atertu eta ateratako ondorioei dagokionez, honako ondorioak atera zituen Ibarrak (2015): Edozein adinetako euskaldun zaharren artean (Euskara L1) oso arrunta eta ohikoa dela kode txandakatzea eta eguneroko jardunean sortzen dela batetik. Bestetik, egiten den txandakatzea eta gazte urbanoen hizkeran sortzen dena nahiko antzekoak direla, bien kasuan kode-txandakatzea esaldien barruan (3), esaldi artean (4) eta lokuzioetan (5) sortzen dira eta antzeko funtzioak betetzen dituzte.

(3) Ta azkena dut, Fermin, ta hoi *Ingeniero superior* ein zun.<sup>5</sup>

(4) Ya badut gogua bueltatzeko lanera, ba... ni asteburu hontan ez dut uste ateitzia... lana, juaten banaiz *la voy a liar*, ta gero jefia *mala hostian*.<sup>6</sup>

(5) ... eta gu bezelaxe beño *lo que pasa que* rangueikin zegon<sup>7</sup>

Ezberdintasunei dagokienez, edukian daude handienak. Ezberdintasunak daude erabiltzen diren hitzetan, adibidez, esamolde edo makulu hitzetan edota hiztegi falta dagoenean ezberdinak dira batzuek eta besteek erabiltzen dituzten hitzak. Adibidez, Ibarrak (2015) aipatzen du euskaldun helduen artean oso ohikoa dela zenbakiak eta hilabeteen izenak gaztelaniaz ematea, hiztun hauek ez direlako eskolatuak izan euskaraz eta hiztegi eskasiagatik erdarara jotzeko joera nabarmentzen duela. Gazteengan ere

---

<sup>5</sup> Ibarra (2015: 331)

<sup>6</sup> Ibarra (2011:292)

<sup>7</sup> Ibarra (2015: 330)

agertzen dela kode-txandakatze hau ere badio, baina itemak ezberdinak izan ohi direla, zenbakiak eta hilabeteak, esaterako, ez. Ondorengo adibidean dugu heldu batek egindako esaldi bat:

(6) Hiltzen hituen bai *diciembre* hasten zen *hasta febrero* marzuraino zengatik kontserbatzen zen ordubean (Arbizu)<sup>8</sup>

Ibarrak (2015) honako adibideak aipatzen ditu lokuzioetan gertatzen diren ezberdintasun hauei dagokienean:

“Gazteen artea ere usu gertatzen dira (Ibarra 2011:288) txandakatze hauek. Baina, aldea dago, gehienetan desberdinak izan ohi dira. Alegia, ez dira *lo pasa que, por ejemplo, además, o eso*, baizik eta *yo que sé, sin más, ya está, vale, no se qué...* alegia, gazte kutsua ematen dizkieten makulu hitzak izaten dira”

Ibarraren (2015) ikerketan helduen datuak 50 urtetik gorako 10 euskaldun zaharrekin (5 gizon eta 5 emakume) grabatutako elkarrizketetatik ateratako corpusa erabili da. Grabaketa bakoitza 20 minutu ingurukoa da eta giro lasai batean egina, gehienetan biloba edo seme-alaba batek egindakoak. Elkarrizketa irekiak baina badira gehienek jorratu dituzten gaiak, adibidez, bizitzako pasarteak, familia, herriko ohiturak etab. Herri ezberdinetako jendea da, batzuk aipatzearen, Dorrau, Arbizu, Donamaria, Usurbil,... Guztiak euskaraz bizi diren arren erabateko gaitasuna dute euskaraz eta gazteleraz egitean, esan daiteke elebidun osoak direla. Guztira kode txandakatzearen 160 burutzapen atera dira grabaketa hauetatik, nahiz eta adibideetako batzuk errepikatuak diren eta ikerketarako adibide bakarra nahikoa den, errepikatuek ez baitute ezer berririk aportatuko..

Parafita et al. (2015) lanaren ildo nagusia generoaren esleipenean datza. Gaztelera- ingelera kode txandakatze kasuetan nahiz eta ingelera generorik ez markatu, gaztelerako generoaren hautua maskulinorantz joaten zela ikusirik, euskaraz zer gertatzen den ikertu nahi dute eta genero hautu horretan zein ezaugarri duen pisu gehiena jakin. Bi hizkuntza hauen hautua ez da ausazkoa, biek bai euskaraz eta bai ingelera gaztelerak ez bezala ez baitute generoa markatzeko morfemarik eta generoa markatzen duen hizkuntza batekin elkarbizitzan nolako kode-txandakatze motak sortzen diren jakin nahi da esan dugun bezala. Horretarako honako ezaugarriak subjektuak

---

<sup>8</sup> Ibarra (2015:335)

erabili dituzte: 30 pertsona, batz best 25 urte dituztenak, L1 gaztelera dutenak(30 pertsonatik 26ren kasu da hau) baina elebidun goiztiarrak direnak, batz beste, 3-4 urterekin euskara ikasi zutenak eta horrez gain ikerketa egin zen garaian 30 etik 28k euskara gaitasuna frogatzeko tituluak zituzten.

Metodologiari dagokionez aurrez aipatutako lanetan ikusi ez den bezala, hemen hiru ikerketa modu proposatu zituzten, lehena naturalistikoa deitzen dutena, bat-bateko sormen naturaleko testuak lortzea eta han dagoen informazioa aztertzea; bigarrena semi experimentalak deitua, bat-bateko hizkeran oinarritua baina ikertzaileek bideratutako esaldiak sortuz eta azkenik experimentalak. Azken hau entzute ariketa izango da eta bertan parte hartzaileek epaitu egin beharko dute entzuten dutena egokia edo entzungarria egiten zaien ala ez.

Ondorioei dagokienez, ondorengoak izan ziren Parafita et al. (2015) lanean: Ikerketa naturalari dagokionez ikusi zuten, euskara-gaztelera kode-txandakatze kasuetan, *-a* euskarazko determinatzailearen morfema duenean euskarazko hitzak gaztelera hitzetan femeninoa erabiltzea ekartzen duela. Gainera, hau ikerketa semi experimentalak datuekin bat etorri zen, bietan ikusi zen euskarazko determinatzaile markak duen pisua gaztelera genero femeninoa erabiltzerako orduan. Izenak normalean determinatuta joan ohi direnez maiztasun handiagoa izango dute *-a* markaz amaitzen diren hitzek eta orduan, euskara-gaztelera txandakatze kasuetan femeninoa izango da lehenesten den generoa. Gaztelera – ingelera kode txandakatzearekin egindako ikerketarekin (Poplack et al. 1982) alderatzen dutenean, emaitza ezberdinak direla ikusten da, CS kasu horretan tendentzia maskulinorakoa delako. Horren zergatia Parafita et al.-en (2015) ustetan batean indar gehiago duelako genero analogikoak (ingelera-gaztelera kasua) eta bestean aspektu fonologikoak (euskara- gaztelera kasua).

#### **4.- HIPOTESIA**

Aurreko ataleko lanetan oinarrituz, ikerketa proposamen honetan ondorengo galderei erantzun bat bilatu nahi zaie:

- a) Helduen kasuan, gazteenean bezala, euskara-gaztelera kode txandakatze kasuetan *-a* determinatzaile markak baldintzatzen du gaztelera genero femeninoa hautatzea determinatzaile sintagmetan?

- b) Euskarazko determinatzaile marka ageri ez denean zein genero da maizago agertzen dena?
- c) Zein ezberdintasun daude gazte eta helduen artean generoaren esleipenari dagokionez? Berdin jokatzen al dute? Zertan ezberdin?

Ikerketa proposamen hau oinarritzen den hipotesi nagusia da helduetan, gazteetan bezalaxe (Parafita et al. 2015), euskara-gaztelera kode-txandakatze kasuetako determinatzaile sintagmetan aspektu fonologikoak indarra izango duela gaztelerazko hitzen generoa hautatzerako orduan. Euskarazko *-a* determinatzailea markatua agertzen den kasuetan femeninoarekin lotuko da eta gaztelerazko determinatzailearen generoa ere horrek baldintzatuko du. Argiago ikusteko, esanahi eta genero ezezaguneko asmatutako hitz batekin (Kluni), aurreikuspena (7)-(10) adibide bitarteko perpausetan dago adierazia.

- (7) El Kluni
- (8) \*La Kluni
- (9) \*El Klunia
- (10) La Klunia

Beraz, *-a.z* amaitutako hitzak femeninoztat gaztelerako perpausarekin txandakatzean hartuko lituzke hiztunak baina, zalantza gehiago dago amaiera *-o* eta *-a* ez denean, kasu horietan maskulinorako tendentzia aurreikusten da, izan ere, Teschner eta Russellek (1984) RAEren hiztegiaren 18.edizioarekin egindako ikerketa batek erakutsi zuen gazteleraz *-o.z* amaitutako hitzen %99,87a maskulinoak direla eta *-a* morfemaz amaitutakoen %96,3 femeninoak.

(7)-(10) adibideetan ekoitzienak izango direla aurreikusten den adibideei adjektiboa gazteleraz txertatzerako garaian aurreikusten da lehenik eta behin gaztelerazko determinatzaile femeninoa eta euskarazko determinatzaile marka badu adjektiboaren generoa ere femeninoa izango dela izenaren itzulpena gaztelerara dena delako generokoa izanda ere.

- (11) La makila es larga

(11) kasuan ikus dezakegun bezala nahiz eta *makila*, gazteleraz “palo” maskulinoa izan, aurreikusten da femeninoa hautatuko dela.

Genero bakoitza esleitzerakoan nahasmen handiagoak sor ditzakeela aurreikusten da gazteen artean helduen artean baino eta helduek lehenago eta errazago esleituko diotela generoa aspektu fonologikoagatik euskarazko hitz bati, alegia, *-a* badin badu femeninora joango direla eta ez badu seguruenik maskulinora: Aurrez aipatu dugun asmatutako hitzarekin jarraiki, hitz hori determinatzaile sintagma batean txertatu beharko balute bi mota hauetako esaldiek izango dutela aukera gehiago agertzeko aurreikusten da. Aurrez aipatutako asmatutako hitza (Kluni) erabiliz honako esaldiak espero dira: *La Klunia bonita* eta *El Kluni bonito*.

## 5.- IKERKETA PROPOSAMENA

### 5.1.- Ikerketako aztergaia

Ikerketa honetako aztergaia, mota konkretu bateko Determinatzaile Sintagmak izango dira. Perpausen oinarria gaztelera izanik, izena euskaraz ematen denean eta jarraian adjektibo batekin hau gazteleraz izanik, adjektiboek, gaztelaniazko genero morfologiko marka ikusteko modukoa dutenak izango dira (13), eta ez (14) bezalakoak, arrazoi oso garbiengatik, generoa baldin bada aztergai nagusia ekoizten diren hitz guztiek generoa markatua izatea komeni zaigulako.

(13) bonito/-a, pequeño/-a....

(14) azul, verde...

Aurreko paragrafoan aipatutako aztergaiaren barruan sartzen dira aurkitu nahi diren esaldi idealak, baina ikerketa honetarako ere ezaugarri guztiak betetzen ez dituztenak baliagarri izan daitezke eta ez ditugu ikerketarako berehalakoan baztertuko. Adibidez ikerketan jasotako ekoizpenak (15) bezalakoak izatea nahi badugu ere (16-18) koak bezalakoak ere baliagarri izan daitezke, gaztelerazko hitzen batean generoa markatua dugulako:

(15) La                      makila                      bonita

Det (gazt) Izena (euskaraz) Adjektiboa (gazteleraz)

- (16) La                    makila                    polita  
       Det (gazt) Izena (euskaraz) Adjektiboa (euskaraz)
- (17) La                    makila  
       Det (gazt) Izena (euskaraz) Adjektiboa (ez dago)
- (18)                        makila                    polita  
       Det (ez dago) Izena (euskaraz) Adjektiboa (euskaraz)

## 5.2.- Parte-hartzaileen aukeraketa.

Oso profil zehatz baten bila gabiltzanez Parafita et al.-ek (2015) bezala talde hadia ikertuko da. Izan ere, ikusi dugu Ibarren (2013) lanean nola dioen emaitza ez dela fenomenoaren erakusgarria aztergaiaren barruan sartzen ziren perpaus gutxi eskuratu zituztelako. Ikerketa horretan 5 pertsonaren datuak bildu ziren guztira hiru ordu eta erdiko hizketaldiak aztertuz, aldiz , Ibarra (2015) ikerketan 10 parte-hartzaileekin bakoitzarekin egindako 20 minutuko grabazioan 160 adibide (errepikatzen zirenak kontatuta) lortu zituzten. Epelde eta Oyarçabalen (2009) kasuan aipatzen dute beren ikerketan DS kopuru urria jaso zutela, guztira 4 pertsonarekin 5 orduko grabaziotan 4 adibide bakarrik jaso dituzte frantsesezko determinatzailea eta euskarazko izena dituen. Hau dena ikusirik, parte-hartzaile kopurua 30eko izango da ikerketa honetan pertsona gehiagoren hizketaldiak izanik aukera gehiago dagoelako bilatzen gabiltzan parametroen barruan dauden perpausak aurkitzeko. Gainera Parafita et al. (2015) lanarekin alderatu nahi badira emaitzak ondo etorriko da parte-hartzaile kopuru bera, 30, alegia, izatea emaitzek balio bera izan dezaten.

Lehen esan bezala adin tartea izango da esanguratsuen ikerketa honetan, azken finean gazteekin egindako ikerketa bateko datuak (Parafita et al. 2015) alderatu nahi baitira helduenekin. Lehenik eta behin ikusi dugu Epelde eta Oyarçabalen (2009) lanean kode txandakatzearen fenomeno hau helduetan ere gerta daitekeela, beraz, helduen elkarrizketetan pentsatzekoa da kode-txandakatze kasuak jasoko direla. Ibarren (2015) lanean kode txandakatzearen funtzioa gazteen eta helduen artean bera dela esaten da baina ez eduki aldetik. Hitz eta esamolde ezberdinak erabiltzen dituzte. Ibarak (2015) heldu bezala 50 urtetik gorakoak hartzen ditu, baina, lan honetarako adin tartea bat zehaztearren 40-60 arteko pertsonak aztertuko dira. 50 urterik gorakoak oso adin tarte handia delako eta zalantzarria izan daiteke, zaku berean sartzen ditugulako adibidez 55 urteko gizon bat eta 90 urteko bat, adin tarte handia da eta hizkera mota seguru ez

dela berdina, ikusi baitugu beste ikerketa lanetan gazteetatik helduetara (20 urteko gazteetatik 50 urte ingurukoetara, Ibarra 2015) aldatu egiten direla kode txandakatzean erabilitako hitzak, beraz, pentsarazten du honek 50etik 90era ere aldatuko direla.

Egoera soziolinguistikoari dagokionez, aipatutako lan guztietan bezala, eremu urbanoko pertsonak izango dira eta Parafita et al.-ek (2015) Iruñeko gazteekin egindako ikerketarekin alderatu nahi denez, egokia ikusten da bertakoak izatea aukeratutako pertsonak, bizi diren eremuak ez dezan baldintzatu edo kolokan jarri lortutako emaitza. Hizkuntzari dagokionez Ibarra (2015) eta Epelde eta Oyarçabalek (2009) euskaldun zaharrekin lan egin dute eta aldiz Parafita et al.-ek (2015) L1 gaztelera dutenak baina txikitatik euskara ikasi dutenak eta maila altua dutenak aukeratu dituzte. Iruñean biztanleen %12<sup>9</sup> elebiduna da, ikerketa honetarako behar ditugun pertsona motetan (40-60 urte bitarteko helduak) ulermen maila ona biztanleriaren %8koa da eta erdizkako maila %11, hitz egiterakoan berriz, ongi edo oso ongi egiten dutenen portzentajea %6,3koa da eta erdizka egiten dutenena %7,8. Euskararen egoera hau ikusita eta legez Nafarroako eremu elebidunean egonda, oraindik ere gaztelarak indar handiagoa duelarik, elebidunak aurkitzerako garaian ez da ezberdintasunik egingo elebitasuna zein adinekin lortu zuten, soilik bi hizkuntzatan moldatzea eskatuko da. Horretarako batez ere euskara ondo menperatzen dutenaren ziurtagiriren bat badute hobeto. Arestian aipatu dugun bezala, gaur egun kode-txandakatzearen fenomenoak bi hizkuntzak ongi menperatzearen seinale edo erakusgarri da, beraz, ikerketa egiterako orduan, komenigarria litzateke bi hizkuntzak ondo menperatzen direla bermatzea.

### 5.3.- Metodologia

Ikerketa proposamen honetan ahalik eta DS barruko kode txandakatze kasu gehien bildu nahi dira. Horretarako, ikerketa askotan bezala, modu natural eta espontaneoan sortutako elkarrizketez gain modu esperimentalean jasotako datuak ere eskuratu nahi dira, eta horretarako Parafita et al.-ek (2015) erabilitako metodoak oinarri hartuta egingo da diseinua. Aukeraketa hau egin da orain artean eskuartean izandako lanetatik osatuena dena uste delako modu naturalistikoaz gain onarpen maila lantzen duelako eta baita modu gidatuan sortutako perpausak lortzeko ariketak erabili zirelako.

---

<sup>9</sup> Euskararen egoera Nafarroan (2008) txostenetik hartutako datuak

Hiru ikerketa modu edo ariketa proposatu zituzten, lehena datu naturalistak jasotzeko baliatuko dena, bat-bateko sormen naturaleko testuak lortzea eta han dagoen informazioa aztertzean datza, bigarrena semi-esperimentala deitua, ikerlariak behar dituzten motatako perpausak sortzera bideratuta dago. Ariketak eginez lortzen dira datuak, jolas baten bidez. Azkenik entzumenezko ariketa bat proposatzen dute, bertan entzundakoa epaitu beharko dute parte-hartzaileek.

### 5.3.1 Datu bilketarako ariketen proposamena

#### 5.3.1.1. Sormen espontaneo gidatu gabea

Datu bilketa naturalistikoa egiterako orduan aurrez jasotako hizketaldiak aztertu dituzte Parafita et al. (2015) lanean eta bertatik atera dituzte emaitzak, hain zuzen ere Deuchar et al. (2010) lanetik ateratako corpora da eta bertan bi hizkuntzetan maila altua duten hiztun elebidunen elkarrizketa espontaneoak biltzen dira L1 euskara eta L2 gaztelera duten pertsonenak eta bertan 92 adibide aurkitu zituzten gaztelerazko determinatzailea eta euskarazko izena zuten perpausetan. Ikerketa proposamen honetan datu propioekin lan egin nahi da, beraz, ikertaldek berak jasotzea proposatzen da.

Ibarraren kasuan (2013) gazteei grabagailu bat ematen zaie eta eskatzen zaie elkarrizketan daudenean grabagailua pizteko eta elkarrizketa guztiak grabatzeko lagunartean dauden bitartean.

Bi arazo datozkit burura hau proposatzerako orduan. Bata, 30 pertsonarekin lan egiteko eta nahi dugun subjektu motak kontrolatzeko zaila izan daitekeela, ezagunak izan beharko luketelako hautatuek horrela elkarren elkarrizketak grabatu ahal izateko. Gainera elkarrizketek modu informalekoak eta espontaneoak izan behar dute eta ez zait iruditzen elkarrizketa baten erdian grabagailu bat aterata, jakinik ikertzeko dela, espontaneitate eta naturaltasuna mantenduko litzatekeenik.

Beste aukera bat Epelde eta Oyarçabalek (2009) erabilitako metodoa erabiltzea da; hauen kasuan ikerlaria bera da elkarrizketatzailea eta bien artean izandako elkarrizketa grabatzen da eta hortik atera daiteke corpora. Hemen izan dezakegun arazoa da ikerlaria bera, kanpoko pertsona bat, grabagailu batekin etorrira berriro ere hizkera naturala eta espontanea ez izatea.

Eta amaitzeko beste aukera Ibarrak (2015) erabilia da, etxeko batekin grabatzen du subjektuarekin izandako elkarrizketa, hogeitun minutuko grabaketan nahi duten gaiaren



inguruan hitz egiten grabatzen da. Iruditzen zait kasu honetan ezberdintasunak egon daitezkeela grabatzen dabilen pertsonaren arabera, ez baititu adibide edo esamolde berdinak erabiliko pertsona batek 20 urte gazteagoa den batekin hizketan dagoenean eta bere adineko batekin hizketan dagoenean.

Ikerketa proposamen honetako lehen ariketako datu bilketarako Epelde eta Oyarçabalen (2009) metodologia da erabiliko dena. Parte-hartzaileak lasaien eta ekoizpen naturalena egingo duten moduan egongo direlako. Ikerlariak subjektuarekin berarekin leku ezagun batetan elkarrizketa bat izango du, nahiko gai librean. Parte-hartzaileak ahalik eta eroso sentitzen diren gaiak landuko dira elkarrizketa horretan. Elkarrizketa grabatu egingo da eta ondoren transkribatu lanketa egiteko. Ez da bideratuko nahi den aztergai motako perpausak sortzera, ikusi nahi baita hizkuntzaren erabilera behartu gabean zenbat kasutan gertatzen den aztertu nahi diren perpaus motak ekoiztea.

#### 5.3.1.2 Sormen espontaneo gidatua

Ikerketa semi-esperimentalaren prozedurari dagokionez, Parafita et al.ek (2015) 30 Parte-hartzaileak binaka jarri zituzten aurrez-aurre mahai batean. Mahaiaren erdian pantaila bat egongo da bakoitzak bestearen aldea ikus ez dezan baina bai bestearen aurpegia. Bakoitzak rol bat izango du: batek zuzendari papera eta besteak jokalaria. Bakoitzak 16 txartel edo karta izango ditu, bertan irudi ezberdinak agertuko dira baina ez asko, izan ere irudi berdinak kolore eta tamaina ezberdinetan izango dituzte, horrek adjektiboen erabilera indartzeko. Bi pertsonen lana txartel horiek mahai gainean ordena berean ipintzea da eta horretarako hitza erabili behar dute. Dinamika azaltzerako orduan, ikerlariak euskara-gaztelerazko kode txandakatzea erabiltzen emango ditu azalpenak. Azalpen hauek idatzita egongo dira, horrela esperimendua egiten den aldi guztietan azalpena ez da aldatuko, hala ere, ikerlariak azalpena bat-batean egin balu bezala egingo du. Garbi utziko zaie jolasa azkar egin behar dutela, gero eta azkarrago egin hobe dela. Eranskinen atalean agertzen da nola izango den testu hau, 1 zenbakiarekin.

Materialari dagokionez, aurrez azaldutako txartelak dira garrantzitsuak. 16 karta egunerokotasuneko irudiekin. Irudi horiek errepikatu egiten dira baina kolore eta forma ezberdinekin. Horrek behartuko ditu adjektibo ezberdinak erabiltzera. Erabilitako objektuen generoa eta amaiera fonetikoa kontutan hartu dira, erdi eta erdi

femenino/maskulino eta erdiak –a lexikoiarekin eta erdiak –a amaiera gabe (adibidez *tipula* eta *arrain*). Aukeratu diren adjektiboak gazteleraz generodunak dira (blanco/blanca → “*zuria*”). Azalpenak ematerako orduan ikerlariak ere kode txandakatzea erabiltzen du baina ez du nahi duen bezala azaltzen baizik eta aurrez idatzita izango du azalpena kodea txandakatzuz hala denei azalpen berdina iritsiko zaie, ikerlariak azalpena irakurri egingo du baina ahalik eta modu naturalenean esango du, esaten ari dena momentuan aterako balitzaio bezala.

Metodo honen bitartez 58 adibide jaso ziren, ikerketarako adibide nahikoa, eta hauek zenbait ezaugarriren arabera banatu ziren, gehienak *interclausal switches* (euskaraz perpaus-arteke txandakatzea) (A motatakoak)<sup>10</sup> eta “gaztelerazko izena euskarazko determinatzailea eta batzuetan euskarazko adjektiboa” gisakoak (C motatakoak) ziren lehenean 25 eta bigarrean 24. Guztietan oinarrizko hizkuntza euskara da eta ez dute bildu gaztelera oinarri gisa duen kode txandakatzeko kasurik, gurean halakoak aurkitzea espero da, mota honetako esaldiak dira eta erabili nahi direnak

Aurreko paragrafoan azaldutako metodo hau oso egokia ikusten da bere osotasunean, jolasaren bitartez erlaxatuago egongo direlako eta momenturen batean baliteke ahaztu ere egitea ikerketan daudela eta hizketaldia modu naturalean joango da, gainera Parafita et al.-en (2015) kasua ikusita emaitza onak eta nahikoak eman ditu ikerketako balorazioek behar adinako indarra izan dezaten, beraz, pentsa daiteke horrelako froga bat eginez gero emaitza bertsuak aterako direla eta nahikoak izango direla ikerketak pisua izan dezan, Parafita et al.(2015) lanean bezala, 60 bat adibide gutxienez.

Egunerokotasuneko hitz motak erabiliko dira (maiz erabiltzen diren tresnak: labana, arkatza... eta elikagaiak: arraina, gazta, ...) kolore ezberdinetan eta forma ezberdinetan irudikatuak izango dira aurrez aipatutako ariketan bezala eta ondorengoak dira aukeratuak: izenen kasuan –a amaiera lexikoa dutenak (determinatzailea izan al ez izan hitzaren amaiera –a letraz dutenak) eta gabeak aukeratu dira, ondorengo 1 taulan ikus daitekeen bezala:

---

<sup>10</sup> Ikus “2- Sarrera” ataleko “2.1- Kode txandakatzeko motak” atala

**1 taula:** Euskarazko hitzak (+/- -a lexikoa) gaztelerara itzulita eta maskulino eta femenino bereizita.

	Euskaraz	Gazteleraz
-a lexikoa	Gazta	Queso (m)
	Kandela	Vela (f)
	Labana	Cuchillo (m)
	Tipula	Cebolla (f)
-a lexiko gabe	Arrain	Pez (m)
	Gezi	Flecha (f)
	Arkatx	Lápiz (m)
	Sagar	Manzana (f)

Adjektiboei dagokienez bi kolore eta bi tamainari dagozkionak izango dira, adjektibo hauek ere maskulino eta femenino bi aukerak dituztenak izango dira: koloreei dagokienez: beltz eta gorri (gazteleraz *negro/a* eta *rojo/a*) eta tamainari dagokionez laburra eta luzea (gazteleraz *corto/a* eta *largo/a*).

Guztira 32 txartel izango dituzte aukera guztiak irudikatuta ondorengo (19) adibidean ikusi dezakegu “gezi” adierarekin agertuko diren aukera guztiak bi hizkuntzatan. Biek ordena ezberdinean jasoko dituzte txartelak. Perpaus bakoitzak txartel batean irudikatua agertuko dena azaltzen du (19) adibideak.

- (19) Gezi gorri motza → Flecha roja corta  
 Gezi gorri luzea → Flecha roja larga  
 Gezi beltz motza → Flecha negra corta  
 Gezi beltz luzea → Flecha negra larga

Hau guztia grabatu egingo da eta ondoren transkribatu. Transkribapen horretatik bilduko dira hasieran ezarritako parametroen barruan sartzen diren lagin guztiak eta lagin horiek biltzean Parafita et al.-ek (2015) hautatutako txandakatze moten arabera sailkatuak izango dira azertuak izateko, hauek sarreran aipatutako zerrendarekin bat datoz<sup>11</sup>.

Ekoizpen hauek sailkatzean ikusiko dugu benetan zein diren txandakatze mota ohikoenak helduen artean eta zeintzuk erabiltzen diren gutxien. Lan originaleko irizpide

<sup>11</sup> Ikus “2- Sarrera” ataleko “2.1- Kode txandakatze motak” atala

berdinak erabiliz benetako alderaketa bat egin genezake Parafita et al.-eko (2015) gazteen datuekin.

### 5.3.1.3 Entzumen ariketa

Entzumen ariketa berriz, idatzizko bertsio batetik aterea dago Parafita et al.-en (2015) lanean eta ahozkorako egokitua, izan ere, kode txandakatzearen fenomeno ahozkoan gertatzen den zerbait da eta horretarako idatzizkoak ez ziren balio ikerketa proposamen honetan berdin, fenomeno bera aztertzen gabiltzanez idatzizko perpausek ez digute balio eta entzumenezko ariketa izango da.

Prozedurari dagokionez, ordenagailu eramangarri baten aurrean jarri eta esaldi batzuk entzungo dituzte eta esaldi hauek hiru kategoriatan baloratu beharko dituzte ahalik eta azkarren kategorio hauekin adierazi beharko dute ea esaldi hori entzuteko aukerarik baduen. Hiru kategorio emango dira zalantza sortuko balitzaio aukera izateko baietzaren eta ezetzaren artean.

- Bai, entzun nezake
- Ez dakit, ez nago ziur entzun nezakeen
- Ez, ezingo nuke entzun

Entzun beharko dituzten esaldien oinarritzko hizkuntza gaztelera izango da. DSaren determinatzailea gaztelera egongo da, izena euskaraz eta adjektiboak euskaraz eta gaztelera.

(20) El hombre ha comprado [*DSla tipula txuri*]

Azalpenak aurreko ariketako metodo bera erabiliaz emango dira, idatzia egongo den kode txandakatzeko azalpena ikertzaileak momentuan esango balu bezala esanaz. Azalpen hauek “Eranskinak” atalean daude 2 zenbakiarekin.




Ariketa amaitzean jasotako emaitzekin bi azterketa egiten dira. Lehena azkarren erantzunak izan direnekin egiten da, hau honela, ikus daiteke emaitza automatiko eta instintiboenen ezaugarriak zeintzuk diren eta nolakoak diren. Parafita et al.ek (2015) 2 irizpide ipini zituzten azterketa honetan ondorioetarako balio izateko. Lehena 4000ms-tik beherako denboran erantzutea eta erantzun bera subjektuen %80ak onartua izatea. Galbahe honetatik pasa ondoren emaitzak 24 izan ziren aukeratuak lehen azterketarako.

Bigarren azterketa berriz, lagin guztiak hartuta egin zuten, generoa baldintzatzen duten bi faktore nagusien efektuaren ordenan analizatu ziren emaitza hauek, soilik

erantzun gabeak edo duda-mudako erantzunak baztertu dira azterketa honetarako, 1537 laginetik 1207 izan ziren aztertuak.

Ariketa honetan azkartasuna baloratuko da beraz, emaitza azkarrak nahi dira eta momentukoak. Datu bilketa egiterako orduan aurreko ariketetan parte hartu duten pertsona berdinekin egingo da ikerketa eta berriro ere ikerlariak azalpenak kode txandakatzea erabiliz emango ditu aurreko ariketako funtzionamendu berdina erabiliz; denei azalpen bera emango die eta hori bermatzeko idatzita egongo da. Azalpen hau eranskinen atalean dago 2 zenbakiarekin. Ikerlariak esan behar duena baina ahalik eta naturalenean helarazi behar dio subjektuari inprobisatzen arituko bailitzan. Azalpenean esango dio subjektu bakoitzari ahalik eta azkarren erantzun behar duela iruditzen zaiona, izan ere, momentu batetik bestera desagertu egingo delako erantzuteko aukera.

Ondoren agertzen den irudian dituzten hiru aukeretako bat aukeratu beharko dute banaka parte-hartzaileek esaldi bakoitza entzuterakoan, bertan hiru aukera aurkituko dituzte beraiek entzundakoa hiru kategoriatan sailkatuz; *Bai, entzun nezake* , *Ez dakit, ez nago ziur entzun nezakeen* eta azkenik *Ez, ezingo nuke entzun*.

	<input type="text" value="Bai, entzun nezake"/>
	<input type="text" value="Ez dakit, ez nago ziur entzun nezakeen"/>
	<input type="text" value="Ez, ezingo nuke entzun"/>

Esaldiak osatzerakoan erabiliko diren determinatzaile sintagmak honelakoak izango dira: 4 izen eta 2 adjektibo izango dira. Adjektiboek dagokienez bata kolore bat izango da, kolore honek gaztelerako itzulpenean genero marka onartzen duena izan beharko du adibidez berdeak (gazteleraz *verde*) ez baitu onartzen, eta bestea forma deskribatzen duena. Kolorea “horia” izango da gaztelerako itzulpenean “ amarillo edo amarilla” dena eta ikusten den bezala generoaren marka onartzen du, formari dagokiona

berriz “berria” (gaztelerazko *nuevo/a*). Izenak *-a* lexikodunak “horma” eta “marra” izango dira eta *-a* lexiko gabeak “txerri” eta liburu”. Entzungo dituzten hitz guztien zerrenda eranskinen atalean dago atxikia 3.eranskina izenburuarekin.

Parafita et al.-en (2015) prozedura bera erabiliko da azterketa egiterako garaian, bi ataletan aztertuz entzuteko ariketan jasotako datuak. Lehen azkarrenak eta erantzun ohikoenak izan direnak, azkarren aukeratuak izan direnek erakutsiko digute zein kasu onartzen ditugun ia pentsatu ere egin gabe, naturalak zaizkigulako, eta zeintzuekin egiten dugun duda gehiago, horrek erakusten du errealitatean ez ditugula erabiltzen edota onartzen. Bigarren azterketarekin, berriz, zein diren perpaus mota hautatuenak jakin ahalko dugu. Hori frogatzeko beharrezkoa da lehen azterketan erabili dena baina korpus handiago bat emaitzek pisua har dezaten eta jarritako irizpidea lan originalean ona dela uste dut; erantzun gabe gelditu direnak eta erantzuna duda mudan eman direnak ezabatu eta beste guztiarekin lan egitea.

## 6.- ONDORIOAK

Ikerketa proposamen honetan kode-txandakatzearen fenomenoaren barruan euskara-gaztelera txandakatzeak gaztelerazko hitzen generoan izan ditzakeen aldaketak aztertu nahi izan dira, batez ere, determinatzaile sintagmako txandakatze kasuak ardatz izanik. Lehenik eta behin jakiteko zein genero den gazteleraz ohikoena aipatu hizkuntza hauek txandakatzen direnean, eta bestetik jakiteko adinak aipatu den guzti honetan zein paper jokutzen duen, ea aldaketarik badagoen adin tarte ezberdinetan, kasu honetan 25 urte inguruko gazteen eta 50 urte inguruko helduen artean.

Hipotesi nagusia da euskarazko *-a* determinatzaile markak baldintzatuko duela genero hautu hori agertzen den bakoitzean eta beraz; *makila*, *sagarra*, *arraina*, *gezia* eta antzerako hitzak gaztelerazko perpausetan euskaraz txertatzean gaztelerako determinatzaile sintagmaren generoa femeninoan ekoitziko dela (21) adibideko esaldi antzeko bat bezalakoa:

(21) La	makila	bonita
Det. (f)	Izena+(det marka)	Adj. (f)
‘-a’		‘polita’

Aldiz, *-a* determinatzaile markarik agertzen ez denean; makil, sagar, arrain, gezi eta antzerako hitzak agertzen diren kasuetan maskulinorako joera aurreikusten da, adibide bera berrartuaz (22) adibidean bezalako esaldia aurreikusten da:

(22) El	makila	bonito
Det. (m)	Izena+(det marka)	Adj. (m)
‘-a’		‘polita’

Aurreko paragrafoan aipatu dena testatzeko Parafita et al. (2015) lanean gazteekin egindako ikerketa bat hartu da oinarri gisa, bertan hiru ariketa proposatzen delarik ikerketarako. Hiru ariketa horiek helduetara moldatuta probatu nahi dira ikerketa proposamen lan honetan eta pertsona helduekin probatzen direnean lan originalean jasotako emaitzen kopuru antzekoak espero dira. Aldaketa handiena jaso duena lehen ariketa izan da: Ahozko ekoizpenak modu naturalean jasotzen dituen. Parafita et al.-ek (2015) beren lanerako jada jasotako korpus bat erabiltzen dute, aldiz, ikerketa proposamen berrirako informazio bilketa propioa egitea proposatzen da ikerketak dituen beharretara moldatuko dena. Metodologia beste lan batetik hartua izango da Epelde eta Oyarçabaletik (2009) hain zuzen ere, zeinetan ikertzailea bera den giro lasai batean subjektuarekin hitz egiten duena, oso giro informalean eta egunerokotasuneko gaiak dira lantzen direnak.

Parafita et al. (2015) laneko ikerketako hiru ariketatik beste biak bere horretan probatuak izango dira baina erabiliko den materiala pixka bat aldatu da lan honetarako.

Proposatu diren hiru ariketa hauetan jasoko diren emaitzak espero da nahikoak izatea pisuzko ondorioak ateratzeko eta batez ere bertan ondorioetarako hain beharrezko izango diren kode-txandakatedun DS nahikoa aurkitzea espero da. Hiru ariketa horregatik jarri dira, hain konkretua denez aurkitu nahi den kode-txandakatze kasua, gero eta emaitza gehiago aurki daitezkeelako ariketa edo datu bilketa saio bakarrean baino hirutan.

Planteamendua egin den moduan hasieran aditzera emandako lau galderak erantzuteko adina informazio jaso daitekeela uste dut ikerketa proposamen honekin. Hauek dira hipotesia osatzerako garaian sortutako galderak:

- a) Helduen kasuan, gazteenean bezala, euskara-gaztelera kode txandakatze kasuetan *-a* determinatzaile markak baldintzatzen du gaztelera-ko genero femeninoa hautatzea determinatzaile sintagmetan?

- b) Euskarazko determinatzaile marka ageri ez denean zein genero da maizago agertzen dena?
- c) Zein ezberdintasun daude gazte eta helduen artean generoaren esleipenari dagokionez? Berdin jokatzeko al dute? Zertan ezberdin?

Lehena erantzuteko entzutezko ariketa izango dela baliagarriena uste dut, izan ere aukera posible guztiak emango zaizkie entzun ditzaten eta aukera guzti horietatik aukeratu beharko dute beraientzat zein den zuzena ala ez, entzungo edo ekoitziko luketena ala ez hala ere beste bi ariketetako emaitzek ere zer esana emango dute. Bigarren galdera erantzuteko agian lehen bi ariketak izango dira erabilgarrienak, benetako ekoizpenekin lan egiteko aukera dagoelako eta ez irudipenekin. Azkeneko galdera erantzuteko, hasteko Parafita et al. (2015) laneko ondorioak berrartu beharko dira eta lortutako emaitza guztiekin ateratako ondorioekin alderatu. Gero eta adibide gehiago lortu indar handiagoa izango du ondorioak.

## 7.- ERANSKINAK

### 1.eranskina: Ikerketako bigarren ariketaren azalpena.

“Bueno, orain *tenéis que hacer una ariketa con estas txartelas*. Las *txartelas* daukate *unas imagenes*. *Para hacer la ariketa vais a sentaros* bata bestearen aurrean.

Zuetako bat *va a ser el zuzendari*. *El zuzendari tiene que darle instrucciones al otro para que estén ariketaren amaieran todas las txartelas orgaznizadas en el tablero* modu berdinean. Besteak egin ditzake *las preguntas que quiera* jakiteko ea *si esta haciendo* ondo.

Bestea *va a ser el jokalaria*. *El jokalaria tiene que escuchar bien las instrucciones del zuzendari*, eta *poner en el tablero* berak esaten duen moduan, *para que al final estén igual*. *Aunque el zuzendari le manda egin* behar duena, *puede hacer todas las galderas que tenga*.

*Cada txartela que este bien colocada* son puntu bat eta gaziki badago *dos puntos menos*. *El ariketa es errexa baño teneis un tiempo* eta denboraren barruan egin behar da dena. *Las txartelas qe no esten puestas gaizki daude y tambien quitan bi puntu.*”



2.eranskina: Ikerketako bigarren ariketaren azalpena.

“Orain, lo que vas a hacer es escuchar esaldi batzuk eta tienes que decir con cada uno zer iruditzen zaizun. Horretarako hiru opción izango dituzu “bai entzun nezake” que significa que te suena la perpausa y que lo usarias, “ Ez dakit ez nago ziur” Horrek quiere decir que te suena baino dudak dituzula eta azkenik si no te suena o te parece que gaizki esanda dagoela hori. Tienes que elegir uno ahalik eta azkarren ze los botones para elegir desagertuko dira muy rapido, beraz, tienes que responder momentuan pentsatzen duzunarekin.”

3. eranskina: Ikerketako hirugarren ariketan entzungo diren esaldi guztien zerrenda beren ezaugarriekin.

Izena: Horma		Adjektiboa: Berria- nuevo/a				
ALDAGAIK				DS		
Det Gen.	Eusk. Iz. amaiera	Adj. Hizk.	Adj amaiera	Det	Iz	Adj
Mask.	-det	Gaztelera	Mask.	El	horma	nuevo
			Fem.	El	horma	nueva
		Euskara	+a	El	horma	berria
			-a	El	horma	berri
	+det	Gaztelera	Mask.	El	horma	nuevo
			Fem.	El	horma	nueva
		Euskara	+a	El	horma	berria
			-a	El	horma	berri
Fem.	-det	Gaztelera	Mask.	La	horma	nuevo
			Fem.	La	horma	nueva
		Euskara	+a	La	horma	berria
			-a	La	horma	berri
	+det	Gaztelera	Mask.	La	horma	nuevo
			Fem.	La	horma	nueva
		Euskara	+a	La	horma	berria
			-a	La	horma	berri

Izena: Horma		Adjektiboa: horia-amarillo/a				
ALDAGAIK				DS		
Det Gen.	Eusk. Iz. amaiera	Adj. Hizk.	Adj amaiera	Det	Iz	Adj
Mask.	-det	Gaztelera	Mask.	<b>El</b>	<b>horma</b>	<b>amarillo</b>
			Fem.	<b>El</b>	<b>horma</b>	<b>amarilla</b>
		Euskara	+a	<b>El</b>	<b>horma</b>	<b>horia</b>
			-a	<b>El</b>	<b>horma</b>	<b>hori</b>
	+det	Gaztelera	Mask.	<b>El</b>	<b>horma</b>	<b>amarillo</b>
			Fem.	<b>El</b>	<b>horma</b>	<b>amarilla</b>
		Euskara	+a	<b>El</b>	<b>horma</b>	<b>horia</b>
			-a	<b>El</b>	<b>horma</b>	<b>hori</b>
Fem.	-det	Gaztelera	Mask.	<b>La</b>	<b>horma</b>	<b>amarillo</b>
			Fem.	<b>La</b>	<b>horma</b>	<b>amarilla</b>
		Euskara	+a	<b>La</b>	<b>horma</b>	<b>horia</b>
			-a	<b>La</b>	<b>horma</b>	<b>hori</b>
	+det	Gaztelera	Mask.	<b>La</b>	<b>horma</b>	<b>amarillo</b>
			Fem.	<b>La</b>	<b>horma</b>	<b>amarilla</b>
		Euskara	+a	<b>La</b>	<b>horma</b>	<b>horia</b>
			-a	<b>La</b>	<b>horma</b>	<b>hori</b>

Izena: Marra		Adjektiboa: berria- nuevo/a				
ALDAGAIK				DS		
Det Gen.	Eusk. Iz. amaiera	Adj. Hizk.	Adj amaiera	Det	Iz	Adj
Mask.	-det	Gaztelera	Mask.	<b>El</b>	<b>marra</b>	<b>nueva</b>
			Fem.	<b>El</b>	<b>marra</b>	<b>berria</b>
		Euskara	+a	<b>El</b>	<b>marra</b>	<b>berri</b>
			-a	<b>El</b>	<b>marra</b>	<b>nuevo</b>
	+det	Gaztelera	Mask.	<b>El</b>	<b>marra</b>	<b>nueva</b>
			Fem.	<b>El</b>	<b>marra</b>	<b>berria</b>
		Euskara	+a	<b>El</b>	<b>marra</b>	<b>berri</b>
			-a	<b>El</b>	<b>marra</b>	<b>nuevo</b>
Fem.	-det	Gaztelera	Mask.	<b>La</b>	<b>marra</b>	<b>nueva</b>
			Fem.	<b>La</b>	<b>marra</b>	<b>berria</b>
		Euskara	+a	<b>La</b>	<b>marra</b>	<b>berri</b>

			-a	<b>La marra nuevo</b>
	+det	Gaztelera	Mask.	<b>La marra nueva</b>
			Fem.	<b>La marra berria</b>
		Euskara	+a	<b>La marra berri</b>
			-a	<b>La marra nueva</b>

<b>Izena: Marra</b>		<b>Adjektiboa: berria- nuevo/a</b>				
ALDAGAIK				DS		
Det Gen.	Eusk. Iz. amaiera	Adj. Hizk.	Adj amaiera	Det	Iz	Adj
Mask.	-det	Gaztelera	Mask.	<b>El marra amarillo</b>		
			Fem.	<b>El marra amarilla</b>		
		Euskara	+a	<b>El marra horia</b>		
			-a	<b>El marra hori</b>		
	+det	Gaztelera	Mask.	<b>El marra amarillo</b>		
			Fem.	<b>El marra amarilla</b>		
		Euskara	+a	<b>El marra horia</b>		
			-a	<b>El marra hori</b>		
Fem.	-det	Gaztelera	Mask.	<b>La marra amarillo</b>		
			Fem.	<b>La marra amarilla</b>		
		Euskara	+a	<b>La marra horia</b>		
			-a	<b>La marra hori</b>		
	+det	Gaztelera	Mask.	<b>La marra amarillo</b>		
			Fem.	<b>La marra amarilla</b>		
		Euskara	+a	<b>La marra horia</b>		
			-a	<b>La marra hori</b>		

Izena: Txerri			Adjektiboa: berria- nuevo/a			
ALDAGAIK				DS		
Det Gen.	Eusk. Iz. amaiera	Adj. Hizk.	Adj amaiera	Det	Iz	Adj
Mask.	-det	Gaztelera	Mask.	<b>El</b>	<b>txerri</b>	<b>nueva</b>
			Fem.	<b>El</b>	<b>txerri</b>	<b>berria</b>
		Euskara	+a	<b>El</b>	<b>txerri</b>	<b>berri</b>
			-a	<b>El</b>	<b>txerri</b>	<b>nuevo</b>
	+det	Gaztelera	Mask.	<b>El</b>	<b>txerria</b>	<b>nueva</b>
			Fem.	<b>El</b>	<b>txerria</b>	<b>berria</b>
		Euskara	+a	<b>El</b>	<b>txerria</b>	<b>berri</b>
			-a	<b>El</b>	<b>txerria</b>	<b>nuevo</b>
Fem.	-det	Gaztelera	Mask.	<b>La</b>	<b>txerri</b>	<b>nueva</b>
			Fem.	<b>La</b>	<b>txerri</b>	<b>berria</b>
		Euskara	+a	<b>La</b>	<b>txerri</b>	<b>berri</b>
			-a	<b>La</b>	<b>txerri</b>	<b>nuevo</b>
	+det	Gaztelera	Mask.	<b>La</b>	<b>txerria</b>	<b>nueva</b>
			Fem.	<b>La</b>	<b>txerria</b>	<b>berria</b>
		Euskara	+a	<b>La</b>	<b>txerria</b>	<b>berri</b>
			-a	<b>La</b>	<b>txerria</b>	<b>nueva</b>

Izena: Marra			Adjektiboa: berria- nuevo/a			
ALDAGAIK				DS		
Det Gen.	Eusk. Iz. amaiera	Adj. Hizk.	Adj amaiera	Det	Iz	Adj
Mask.	-det	Gaztelera	Mask.	<b>El</b>	<b>txerri</b>	<b>amarillo</b>
			Fem.	<b>El</b>	<b>txerri</b>	<b>amarilla</b>
		Euskara	+a	<b>El</b>	<b>txerri</b>	<b>horia</b>
			-a	<b>El</b>	<b>txerri</b>	<b>hori</b>
	+det	Gaztelera	Mask.	<b>El</b>	<b>txerria</b>	<b>amarillo</b>
			Fem.	<b>El</b>	<b>txerria</b>	<b>amarilla</b>
		Euskara	+a	<b>El</b>	<b>txerria</b>	<b>horia</b>
			-a	<b>El</b>	<b>txerria</b>	<b>hori</b>
Fem.	-det	Gaztelera	Mask.	<b>La</b>	<b>txerri</b>	<b>amarillo</b>
			Fem.	<b>La</b>	<b>txerri</b>	<b>amarilla</b>
		Euskara	+a	<b>La</b>	<b>txerri</b>	<b>horia</b>

			-a	<b>La txerri hori</b>
	+det	Gaztelera	Mask.	<b>La txerria amarillo</b>
			Fem.	<b>La txerria amarilla</b>
		Euskara	+a	<b>La txerria horia</b>
			-a	<b>La txerria hori</b>

Izena: Txerri		Adjektiboa: berria- nuevo/a				
ALDAGAIAK				DS		
Det Gen.	Eusk. Iz. amaiera	Adj. Hizk.	Adj amaiera	Det	Iz	Adj
Mask.	-det	Gaztelera	Mask.	<b>El liburu</b>	<b>nueva</b>	
			Fem.	<b>El liburu</b>	<b>berria</b>	
		Euskara	+a	<b>El liburu</b>	<b>berri</b>	
			-a	<b>El liburu</b>	<b>nuevo</b>	
	+det	Gaztelera	Mask.	<b>El liburua</b>	<b>nueva</b>	
			Fem.	<b>El liburua</b>	<b>berria</b>	
		Euskara	+a	<b>El liburua</b>	<b>berri</b>	
			-a	<b>El liburua</b>	<b>nuevo</b>	
Fem.	-det	Gaztelera	Mask.	<b>La liburu</b>	<b>nueva</b>	
			Fem.	<b>La liburu</b>	<b>berria</b>	
		Euskara	+a	<b>La liburu</b>	<b>berri</b>	
			-a	<b>La liburu</b>	<b>nuevo</b>	
	+det	Gaztelera	Mask.	<b>La liburua</b>	<b>nueva</b>	
			Fem.	<b>La liburua</b>	<b>berria</b>	
		Euskara	+a	<b>La liburua</b>	<b>berri</b>	
			-a	<b>La liburua</b>	<b>nueva</b>	

Izena: Txerri		Adjektiboa: berria- nuevo/a				
ALDAGAIK				DS		
Det Gen.	Eusk. Iz. amaiera	Adj. Hizk.	Adj amaiera	Det	Iz	Adj
Mask.	-det	Gaztelera	Mask.	<b>El</b>	<b>liburu</b>	<b>amarillo</b>
			Fem.	<b>El</b>	<b>liburu</b>	<b>amarilla</b>
		Euskara	+a	<b>El</b>	<b>liburu</b>	<b>horia</b>
			-a	<b>El</b>	<b>liburu</b>	<b>hori</b>
	+det	Gaztelera	Mask.	<b>El</b>	<b>liburua</b>	<b>amarillo</b>
			Fem.	<b>El</b>	<b>liburua</b>	<b>amarilla</b>
		Euskara	+a	<b>El</b>	<b>liburua</b>	<b>horia</b>
			-a	<b>El</b>	<b>liburua</b>	<b>hori</b>
Fem.	-det	Gaztelera	Mask.	<b>La</b>	<b>liburu</b>	<b>amarillo</b>
			Fem.	<b>La</b>	<b>liburu</b>	<b>amarilla</b>
		Euskara	+a	<b>La</b>	<b>liburu</b>	<b>horia</b>
			-a	<b>La</b>	<b>liburu</b>	<b>hori</b>
	+det	Gaztelera	Mask.	<b>La</b>	<b>liburua</b>	<b>amarillo</b>
			Fem.	<b>La</b>	<b>liburua</b>	<b>amarilla</b>
		Euskara	+a	<b>La</b>	<b>liburua</b>	<b>horia</b>
			-a	<b>La</b>	<b>liburua</b>	<b>hori</b>

## 8.- BIBLIOGRAFIA

- DEUCHAR, M., EPELDE, I., OYHARÇABAL, B., & PARAFITA COUTO, M. C. 2010. Gender agreement in Spanish–Basque and Spanish–English nominal constructions. XXXIX Simposio Internacional de la SEL, Santiago de Compostelan, Espainia aurkeztua.
- EPELDE Irantzu & OYHARÇABAL Bernard. 2009. “Code Switching en las variedades orientales del vasco”, IKER – UMR 5478 Basque Text and Language Study Center, Baiona .
- GUMPERZ, John. 1982. Discourse Strategies. Cambridge University Press: Cambridge
- IBARRA, Orreaga. 2010. “Alternancia ligüística en el euskera coloquial de los jóvenes vasco parlantes navarros: algunas razones para su uso” In García Manuel et al. (arg.), *Interaxió comunicativa i ensenyament de llengües*. GIEL (Grupo de Interacción y enseñanza de Lenguas), València: Universitat de València. 249-256
- IBARRA, Orreaga. 2011. “ Sobre estrategias discursivas de jóvenes vascohablantes: causas que motivan el cambio de código” *Oihenart* 26, 279-298
- IBARRA, Orreaga 2013. “El code-switching vasco-castellano en oraciones atributivas en hablantes jóvenes”. *Oihenart* 28, 115-130.
- IBARRA, Orreaga.2015. “Euskara eta gaztelania euskaldun zaharren ahotan” in. Fernandez, Beatriz eta Salaburu, Pello (arg.) *Ibon Sarasola, gorazarre*. Bilbo. EHU argitalpen zerbitzua, 327-338
- JAKE, J.; MYERS-SCOTTON, C. eta GROSS, S. 2002. Making a minimalist approach to codeswitching work: Adding the Matrix Language. *Bilingualism: Language and Cognition*, 5, 69–91.
- LANTTO, Hanna. 2012. “Code-switching, swearing and slang: The colloquial register of Basque in Greater Bilbao”, *International Journal of bilingualism* <http://ijb.sagepub.com/>
- LOPEZ MORALES, Humberto. 1989/1993. Sociolingüística. Gredos
- MUÑOA, Inma. 1997. “Pragmatic functions of code-switching among basque-spanish bilinguals”. *Actas Do I Simposio Internacional sobre o bilingüismo*. Universidad de Vigo. 528-541

- MUYSKEN, P. (2000). *Bilingual speech. A tipology of code-switching*. Oxford: Cambridge University Press.
- NAFARROAKO GOBERNUA (2012). *Euskararen egoera Nafarroan 2008: Azterlan soziolinguistikoak*. Iruñea: Nafarroako gobernua.
- PARAFITA COUTO, M. CARMEN; MUNARRIZ, AMAIA; EPELDE, IRANTZU; DEUCHAR, MARGARET eta OYHARÇABAL, BEÑAT. 2015. Gender conflict resolution in Spanish–Basque mixed DPs. *Bilingualism: Language and Cognition*, 18, 304-32
- POPLACK, Shana .1980. “SOMETIMES I’LL start a sentenc in sanish y término en español: towards a typology of code-switching” *Linguistics* 18, 581-618.
- POPLACK, S., PUOUSADA, A., & SANKOFF, D. 1982. “Competing influences on gender assignment: Variable process, stable outcome.” *Lingua*, 57, 1–28.
- ROMAINE, Susanne. 1995. *Bilingualism*. Oxford, UK: Blackwell
- TESCHNER, R. V., & RUSSELL, W. M. (1984). The gender patterns of Spanish nouns: An inverse dictionary-based analysis. *Hispanic Linguistics*, 1, 115–132.